

Ikastetxeari aniztasunaren tratamendua. Hobetzen lagunduko dion eredu baterantz

Begoña Martínez Domínguez

Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Hezkuntza berezia. Premia bereziak. Aniztasuna. Tratamendu.

Gure asmoa da, era irekian eta eztabaida pizteko asmoz, ikastetxearen barneko laguntza-zerbitzu batek izan ditzakeen ezaugarriei buruzko hainbat gogoeta eta uste aurkeztea, zerbitzu hori ikasleen behar-aniztasunari ematen zaion erantzuna hobetzeko ohiko baliabidea bilaka dadin. Egingo dugun proposamena ulertu eta baloratu ahal izateko, hasiera batean «hezkuntza bereziko ikasleei», gero «hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei» eta, azkenik, aniztasunari erantzungo dion diskurtsoak izandako bilakaeraren oinarrian zein ikuspegi eta jarduteko era dauden aztertuko dugu lehenengo atalean. Oraingo honetan, leku-arazoak direla-eta, barneko laguntza-zerbitzua besterik ez dugu aipatuko: ikastetxearen egituraren osagaia dena eta ikastetxearen baitan kokatzen dena hain zuzen ere.

1. IKASTETXEARI LAGUNTZEKO EREDUEN BILAKAERA

Laguntza-irakasleek ikastetxeetan egindako lanari buruz, irakaskuntza egokitzeko estrategiei buruz eta *curriculum* komunaren garapen-prozesuaren inguruan literatura berezituak sortu dituen lanak laburtuz, ikastetxeari laguntzeko hiru eredu guztiz ezberdinak sumatu ditugu. Hiru eredu horien oinarrian ikasleak eta beraien arteko ezberdintasunak, eskolaren nahiz bertako profesionalen zeregina, eta ikastetxeak kalitatea hobetzeko nahiz erantzuteko duen gaitasuna ulertzeko era jakin bat dago.

Ikastetxeen egunerokotasuna eta laguntzeko era edozein eredu isla dezakeena baino konplexuagoa eta dinamikoagoa dela jakin badakigu. Jarraian aurkeztuko ditugunak, beraz, laguntza-objektuaren aldaketan ikus daitekeen joera jakin baten ezaugarriak besterik ez dira izango: aldaketa

horrek, ikasleengandik irakasleengana eta, ondoren, ikastetxeetara egin du bidea.

1.1. «Hezkuntza bereziko ikasleei» laguntzeko eredia

Ikastetxe arruntetan lehenengo laguntza-irakasleak sartu zirenean sortu zen eredu hori, alegia, integrazioa errazteko asmoz «hezkuntza bereziko» ikasleak ikastetxe horietan eskolatzearekin batera. Eredu horretan, laguntza-irakasleen ardura nagusia gabeziak dituzten ikasleei laguntza-gelan (hezkuntza bereziko gela ere deitu izan zaion horretan) laguntza zuzena ematea izango da —eta ahal den neurrian ikasle bakoitzari egokitutakoa—. Esku hartzeko ingurune isolatu horretan banakako programak gauzatuko dira, profesional horiek kanpoko laguntza-zerbitzuetako talde multiprofesionalarekin batera diseinatutakoak eta curriculum-esparruen irakaskuntzaren abiapuntutzat ikasle bakoitzaren ezaugarriak dituztenak, betiere, «defizitaren» baldintzapean. Bien bitartean, gela arruntetako irakasleak, talde-gela testuinguruari egokitu ez zaion programa baten garapenaren zai egonik, ikastetxean dagoen profesional berri horri etekina aterako dio, zailtasunak dituzten ikasleen irakaskuntzan aditua da-eta. Horrela, ikasle bati erantzuteko prestakuntza egokia edo/eta beharrezko hezkuntza-baliabideak ez dituela uste duenean, profesional berri horri utziko dio ikasle horren hezkuntzaren erantzukizuna.

Laguntza-eredu horren zergatia aztertuz gero, proposatzen den hezkuntza-erantzunaren azpian bi uste sendo daudela ikusiko dugu: batetik, ikasleen arteko ezberdintasunak ezaugarri pertsonal eta aldaezin gisa ikustea, subjektu berezien eta normalen arteko diagnostiko bereizlea egin ahal izatea ahalbidetuko duena; bestetik, talde arruntaren homogeneousitatea.

Zailtasunak subjektu batzuek dituztela eta laguntza-irakasleak ikastetxeak dituen adituak direla uste izateak azaltzen du irakaskuntzaren egokitzapena ikasle «bereziekin» besterik ez egitea, hots, «ikasteko zailtasunak dituztenekin», «desberdinak direnekin», eta abar. Edo laguntza hori, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleengana besterik ez bideratzea, laguntza-irakasleekin batera bakarka eta gela desberdin batean isolatuta egitea, edo hartuko diren neurriak gela arruntaren dinamikaren osagai izatera inoiz ez iristea, edo ikastetxearen irakaskuntza-eredua inoiz auzitan ez jartzea.

Ikuspegi eta jarduteko era hori, egituratzeko joera jakin baten bidez gauzatuko da, hau da, irakasle arruntek —egoerarik onenean— antzeko ikasgaiak irakasteko erantzukizuna bere gain hartu duten lankideekin batera lan egingo dute. Laguntza-irakasleak, berriz, ikasle-multzoan bertan duen esku hartzearen arabera lan egingo du. Lana antolatzerakoan egiten den bereizketa horren ondorioz, laguntza-irakasleak ez du inoiz parte hartuko, nahiz eta bertako langilea izan, ikastetxeak erabakiak hartzeko dituen ohiko esparruetan. Are gehiago, irakasle aditu horiek —hots, diagnostikoan eta

hezkuntza-teknika berezien bidezko tratamenduan adituak diren horiek— izango dute eta ez beste inork, laguntzaren erantzukizun osoa ikastetxean.

1.2. «Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei» erantzun ahal izateko, irakasleari zuzentzen zaion laguntza-eredua

«Hezkuntza bereziko» ikasleak izenetik «hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak» esapidera doan bidean ikuspegi-aldaketa garrantzitsu bat gertatuko da eta horrexek sortuko du honako eredu hau. Ikasleek ikasteko dituzten ezberdintasunek nahiz zailtasunek, diagnostikoa premien arabera egiteko beharrarekin duten elkarreragina ulertzea izango da oraingo abiapuntua. Premiak erlatiboak eta funtzionalak direla eta gizabanakoaren (ahalmenak-zailtasunak) zein inguruaren (ahalmenak-gabeziak) menpe daudela ulertzean, ikasleen eta ikastetxearen ikuspegi berri bat sortuko da.

Aipatu dugun ikuspegi-aldaketa horrek, ondorio praktiko nabarmen bat izango du: laguntza-irakasleen eta irakasle arrunten arteko lankidetzaren hasiko da eta laguntza eskainiko zaion ikaslearen premiak testuinguru jakin batean aztertuko. Hortaz, ikastetxea ezagutu, aztertu, egokitu, eta hobetzeko aukera sortuko da zailtasunak dituzten ikasleei soilik eragingo dieten neurri zehatzak eta banakakoak hartu baino lehen, izan ere, bide horretatik ikasle horiei «bereziki» edo «desberdinak» izena jartzea besterik ez da lortzen. Era berean, gainerako ikasleen heterogenotasuna eta irakaskuntza ikasle guztiei egokitu behar zaiela nabarmenduko da. Horrela, curriculum komunak ikasle guztien ikaskuntza hobetzeko duen gaitasunerantz zuzenduko da laguntzaren arreta. Are gehiago, taldearen premia guztiak aseko dituen gelako programaren egokitzapena gauzatzeko irakasleek duten gaitasunaz ere arduratuko da.

Irakasleen laguntzarako eredu horretan, beraz, curriculumak da arretaren eta hobekuntzaren muina, nahiz eta hasiera batean zailtasunak dituzten irakasle arruntekin besterik ez gauzatu eta adituaren ikuspegia oraindik ere nagusi izan. Horrek guztiak bi ondorio garrantzitsu izango ditu jardunean. Batetik, premiei erantzuteko neurriak hartzeko garaian ezohikotasun txikienetik handienera doan irizpidea erabili ahal izango da. Horrela, gelaren testuinguru arruntean ezarri diren neurri komun eta zehatzak nahikoak ez direla egiaztatu eta baloratu denean besterik ez dira neurri bereziak ezarriko. Gainera, ikasleei laguntza zuzena emateko hartzen diren ohiz kanpoko neurri guztien oinarrian (gela barruan nahiz kanpoan egiteko direnak) ikasle horien taldeari dagokion programazioa egongo da eta irakasle arruntena izango da erantzukizuna. Bestetik, irakasle arruntek talde guztiaren premiak beteko dituen erantzun bat bilatzearen erantzukizuna hartzen hasiko dira. Era berean, irakasle horiek laguntza-irakasleekin (adituak diren neurrian) izango duten harremana laguntzarako zeharkako bidea izango da. Izan ere, irakasle arruntek jasotzen duten aholkularitza horrek zuzenean hobetuko du zailtasunak dituzten ikasleei ematen zaien irakaskuntza, eta, zeharka,

gainerako ikasleena. Egia da, hala ere, lankidetzak horrek nabarmendu egiten duela bi irakasle-talde horiek *curriculumaren* egokitzapen- eta kudeaketa-prozesuetan trebatu egin behar direla, eta taldean lan egiteko gaitasun profesionalak garatzeko prestakuntza ere behar dutela.

Laguntza-eredu horren antolaketari dagokionez, irakasle arruntekin batera lan egiteko uneak finkatzea ezinbestekoa dela argi dago (hezkuntza-premia jakinak edo bereziak dituzten ikasleak dituztenekin behintzat). Horrela, banaka edo gela-mailan egiten den curriculumaren egokitzapenean laguntza txertatu ahal izango dugu. Hori dela-eta, zenbait ikastetxetan, laguntza-irakasleak gainerako hezitzaileek bezalaxe parte hartuko du curriculumaren koordinazioaz arduratzen diren ohiko egituretan. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da talde berean esku hartzen duten hezitzaile-taldetan irakasle arruntak biltzeak dakarren onura, beren lana irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak aztertzeraz eta hobetzeraz bidera baitaiteke horrela, bai eta *curriculum* ziklo bakoitzari hobeto egokitzera ere. Lehen hezkuntzako ikastetxeetan ohikoa den antolatzeko era da, bigarren hezkuntzan laneko antolakuntzaren oinarria departamentuak dira-eta, h.d., gaien arabera eratzen diren curriculumak koordinatzeko egiturak.

1.3. Ikasle guztien premia-aniztasunari emango zaion erantzuna hobetzeko, ikastetxeari zuzenduriko laguntza-eredua

Muinbakarreko hezkuntzaren markoan kokatzen den aniztasunaren diskurtsoak desberdintasunak ulertzeko beste era bat sortuko du. Aniztasuna edozein hezkuntza-talderen berezko ezaugarri gisa ikustearen ardatza izango da taldea osatzen duten pertsona guztiek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan beren gaitasunak, motibazioak, interesak, espektatibak, aurrezagutzak eta abar erabiltzen dituztela onartzea; bai eta, horiek ikastetxearekin duten elkarreraginaren ondorioz, hezkuntza-premia desberdinak (bereziak barne) sortzen direla ere onartzea.

Aipatutako ikuspegi-aldaketa horrek plazaratuko du ikasleen aniztasunari erantzuteko modu sistematiko eta ohiko bat aurkitzeko beharra. Guri dagokigunez, LOGSEak islatzen du ikuspegi hori hainbat zehaztapen-maila eta erabaki-hartzeren bidez. Curriculumak diseinatzeko eredu malgu bat jarraituko da, eta ikastetxeek —irakasle guztiek parte hartuko dutelarik— curriculum komuna hezkuntza-proiektu batean mamitzeko eta egokitzeko aukera izango dute. Hezkuntzaren testuingurua eta gizarte-ingurunea kontuan izanik, ikastetxe bakoitzak bere ikasleen premientzako erantzun-continuum bat osatuko du —arruntenetik ohiz kanpokoenera.

Legeen aferan izandako aldaketen ondorioz, Hezkuntza Sistemaren antolakuntza eta curriculum-egiturari loturiko neurri garrantzitsuak ezarriko dira. Are gehiago, Administrazioek beharrezkoak diren baliabideak eman beharko dizkiete ikastetxeei, hezkuntzaren hastapen horretan oinarritzen

den eskubide konstituzionala gauzatu dadin: hots, gizaki guztien aukeraberdintasuna bermatzea, diskriminaziorik gabe eta desberdintasunak berdintzeko konpromisoa hartuz.

Ikuspegi eta jarduteko marko berri horretan, ikastetxeak du ikasle guztien hezkuntza-premientzako erantzuna aurkitzeko erantzukizuna. Irakasle guztien erronka da: esku hartzearen testuinguru bakoitzean (ikastetxe/gela-mailan edo banaka) sortzen diren hezkuntza-premiak aztertzea, behar horiei erantzunak egokitzea eta bere hezkuntza-eskaintzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Zeregin berri horien ondorioz, erabakiak hartzeko eta bere jardunaren azterketa gogoetatsua egiteko prozesu komun baten partaide bihurtzen da irakaslea. Hori guztia lortu ahal izateko baliagarria izango litzateke hurrengo atalean proposatuko dugun ikastetxearen/ikastetxeko laguntza-zerbitzua.

2. ANIZTASUNARI ERANTZUN AHAL IZATEKO, IKASTETXEARI LAGUNDUKO DION ZERBITZU BATERANTZ

Inozoa litzateke pentsatzea legeen esparruan izandako aldaketa horiek, ikastetxe guztientzat beharrezkoak eta komunak badira ere, nahikoak direla ikastetxeetako jarduna eta ikuspegia aldatzeko. Izan ere, asko dira eguneroko jardunean aurrez aurre dituzten erronka, baliabide eta konpromiso-mailak. Ikastetxe bakoitza elkarri eragiten dioten aldagai anitzen arabera da: ikasleen gizarte-testuingurua, titularitatea, historia, hezkuntza-faseak, antolakuntzaren egitura, irakasle-kopurua eta horien egonkortasuna, baliabideak eta abar. Hori dela-eta, bertan parte hartu duten gizarte-taldeek ezarritako helburuen eta horiek lortzeko egokitzat jo diren bideen eta baliabideen ondorioz, esperientzia, arau eta espektatiba ezberdinak sortuko dira eta horiek mugatu edo osatuko dituzte esku hartzeko era berriak.

Atal hau garatzeko orduan, eredu jakin bat aipatu baino, hainbat oinarriko alderdi eta irizpide zerrendatu nahi izan dugu —esku hartzeko ereduari eta lanaren antolaketari dagozkionak— erreferentzia zabala eta malgua izan daitezen, eta ikastetxe bakoitzak bere beharren eta ahalmenen arabera zehaztu ditzan.

2.1. Esku hartzeko eredia

Ikastetxeen curriculum- eta antolaketa-mailako laguntza emateko zerbitzu batean lan egingo duten profesionalek esku hartzeko hainbat urrats finkatu beharko dituzte, eta ICParen ildoari jarraituz, beren esku hartzea bideratu, esanguratsua bilakatu eta integratu egingo dute. Esku hartzeko eredu komun horrek aldaera anitzak izan ditzake jardunaren esparruan eta dedukzioaren bidetik eraiki daiteke. Hala ere, eskuhartze zehatzen taldeko azterketan oinarrituz indukzioa egitea errealagoa dela eta jardunean era-

gin azkarragoa izango duela iruditzen zaigu. Dena dela, honako baldintzak bete beharko lirateke gure iritziz:

—*Testuinguruari egokitzea.* Ikastetxe bakoitzak aniztasunari erantzuteko nahiz hura aztertzeke unitate bat osatzen du. Ikasleen aniztasun teorikoa ezberdinki banatzen da ikastetxeetan bi arrazoi hauek direla-eta: batetik, sare publikoko ikastetxeak integratzaileak dira berez eta beste ikastetxe selektiboek onartu ez dituzten ikasle desabantailadunak jaso behar dituzte; bestalde, sare publikoaren beraren barnean, zenbait ikastetxe testuinguru soziokultural homogeneo eta onetan kokatzen dira, eta beste batzuek, berriz, gabezia nagusi den egoera batean heterogeneotasunik handienari aurre egin behar diote. Hezkuntza-egoera guztietan aniztasuna eta giza-baliabideen nahiz baliabide materialen koordinazioa gogoan izan behar badira ere, hain ezberdinak diren errealitateen aurrean, zentzuzkoa da pentsatzea zenbait ikastetxek diskriminazio positiborako neurriak jaso behar dituztela, hala nola: irakasleen kualifikazio eta egonkortasun handiagoa, irakasle-ikasleen arteko batezbesteko txikiagoa, aurrekontu eta azpiegitura gehiago, ikastetxearen eta komunitatearen arteko harremanak hobetuko dituzten hezkuntza-berrikuntzak sustatzea, eta, jakina, barneko laguntza-zerbitzu on bat eratzea, hain arazo konplexu eta bereziak konpontzeko prestakuntzarik onena duten profesionalak izango dituen.

Horregatik guztiarengatik, ulertu egin behar dugu errealitate jakin batean funtzionatzen duen laguntza-eredu bat nekez erabil daitekeela beste egoera batean, leku-aldaketa hori ahalbidetuko duen antzeko ezaugarriak ez badago behintzat. Era berean, profesional bakoitzaren funtzioak, betebeharrak eta prozedurak ezin dira aztertu esku hartze hori partekatzen duten, eta zerbitzu bera ematen duten, beste profesionalenei loturik ez bada.

—Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak izan behar du aniztasunari zuzenduriko erantzun-continuum hobeetako laguntza-ekintzen ardatza. Hezkuntza-sistemaren egungo markoan, ikastetxe batek ikasleen aniztasuna inklusiboki artatzen duela esan ahal izateko ezinbestekoa da bertako IHPak kalitateko hezkuntza bermatzea ikasle guztiek dituzten beharrei emango zaien erantzunari dagokionez. Abiapuntua, betiere, bere zerbitzuak jasozten dituen komunitatearen premiak izango dira. Ikuspegi horrek, bi sistema-prozesuren atzeraelikaduran oinarritutako egokitze-prozesu bat eratzearen erronka operatiboa dakar berarekin:

—Testuinguruari egokitutako hezkuntza-eskaintza funtzionala eta malgua osatzea, baliabide eta norabide anitzak izango dituen, eta curriculum ofiziala ikastetxearen hezkuntza-proiektuan islatuko duena, bere ikasleen premiak abiapuntutzat hartuz (alegia, curriculum zehaztapen-maila ezberdinei egokitzeko beharra).

—Eskolatzeko-prozesuan zehar, ikasleen premiei zuzenduko zaizkien hezkuntza-erantzun eta egoerak egokitzeko beharrezkoak diren prozedura eta mekanismoak abian jartzea. Horrela, eskaintza hori ikasleen ezaugarrietatik ahalik eta hurbilen kokatuko da eta horien garapen osoa bultzatuko (oro har hezkuntza egokitzailea izenez ezagutzen dena).

Eskuarki banandu egin diren bi prozesu horien arteko elkarreraginak osatzen du curriculumaren egokitzapen arrunt eta prebentiboaren oinarria, ikasle guztien irakaskuntzaren kalitaterako mekanismotzat hartu ohi dena. Curriculumari eta antolaketa-ri dagozkion planteamendu orokorretan aniztasuna zenbat eta gehiago kontuan hartu, orduan eta gutxiago izango dira ikasleek azalduko dituzten hezkuntza-premia bereziak. Era berean, ohikoak ez diren premiei erantzuteko hartzen diren neurri berezien azterketak baliabide, metodo eta lanerako prozedura berriak ekarriko ditu berarekin, hezkuntza-eskaintzak aniztasunari egokitzeko duen dinamikan txertatu daitezkeenak. Horrela, kalitatea hobetu egingo dugu.

—Lankidetzarako egituren sorrera eta talde-lana erraztu. Ikastetxe baten proiektuaren garapenerako, aniztasunari emango zaion erantzuna eratzeari eta testuinguru soziokulturalaren behar eta aukerei bere helburuak egokitzea garrantzitsua bada, antolaketa-egitura funtzional baten eta talde-lanaren metodologia erabiltzearen garrantzia ez da txikiagoa.

Didaktika- eta antolaketa-proposamen bakoitzak dituen aukerak eta mugak ezagutzeak, ikastetxean jarduten duten profesional guztien talde-lana eskatzen du eskolaren eta gizartearen testuinguru jakin batean ikasle aniztasunari emango zaion erantzuna hobetu ahal izateko. Horrela, curriculuma ikastetxeari egokitzeko nahiz zehazteko prozesua aurrera ateratzeak eskatzen duen erabaki-prozesuan parte hartzeak, elkarlanaren kultura bultzatuko du indibidualismoaren eta arloen menderatzearen oinarritzen ziren lan egiteko erak eta antolaketa-egiturak nagusi ziren ikastetxeetan.

Ildo horretatik, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako laguntza-zerbitzuen zeregin garrantzitsuenetakoa izango da, batetik, irakasleen prestakuntza eta, bestetik, ikastetxean sartzeko edo garapen profesionalerako prozesuen arteko ezberdintasunek sortutako gatazkak eta disfuntzioak gainditzea. Egia da zailtasun horrek burokrazia eta administrazioaren eremuko auziekin nahiz «funtzionarien meritokrazia» delakoarekin lotura handia duela, eta ondorioz, irakasleen behar pertsonalak ikastetxeak dituenen gainetik ezartzeaz gain, bakanismoan eta lehiakortasunean oinarritutako kultura instituzionala sustatzen dela. Jarduteko era hori derrigorrezko curriculumaren diseinuan proposatzen diren lankidetzaren eta elkarlanaren defentsa teorikoaren aurkakoa da, eta hori lortzea da gure iritziz aldaketa eta hobekuntza gauzatzeko oinarritzko zutabea, bai eta ikastetxearen laguntzarako esparruetako bat ere.

2.2. Lanaren antolaketa

Erantzuna behar duten arazoaren konplexutasuna dela-eta, ezin dugu eskatu ikastetxean aniztasunaren erantzuna bere gain hartu dezaketen aditu edo jakitun bakanak egotea. Alderantziz, zentzuzkoago dirudi pentsatzeak

ikastetxearen laguntza-zerbitzuan profesional-talde baten gaitasuna eta lana izango dugula, hainbat erantzukizun hartuko dituztenak bere prestakuntza, erantzukizuna, eta betetzen duten profil profesionalaren arabera, eta talde edo zerbitzu bateko partaide direla ahaztuko ez dutenak. Alderdi horiek aztertzeko laguntza-lana nola antola daitekeen ikusiko dugu, zerbitzu horretan jardungo dutenak zein diren, zein zeregin eta betebeharrak izango dituzten eta beren prestakuntza eta garapen profesionala nola mamituko diren bereiziz.

2.2.1. *Ikastetxearen laguntza-zerbitzuan jardungo duten pertsonak*

Aniztasunari aurre egiteko curriculum-eredu horretan irakasle guztiek laguntza-ekintzak egin behar badituzte ere, beharrezkoa da ikastetxeari laguntza-ekintzekin loturiko zereginak bakarrik beteko dituzten profesionalak osatutako laguntza-zerbitzu bat ematea. Agerikoa da zerbitzu horrek tamaina eta profesional-mota ezberdinak izango dituela erkidegoaren, ikastetxearen eta hezkuntza-zikloaren arabera. Dena dela, honakoak izango lirateke, gutxi gora-behera, partaideak: Orientatzailea edo Aholkularia, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen laguntza-irakasleak, Laguntza-gelako irakasleak, zereginetako ikasgeletako irakasleak, Entzumena eta Hizkuntza irakasleak, Ziklo-mailako laguntza-irakasleak: hizkuntza-eredua, egoera sozial eta ekonomiko kaskarrak dituen lurraldea, ikasle-kopurua, desdobleak eta horrelakoen arabera; eta Programa eta talde jakinen laguntza-irakasleak: konpentsatzaileak gutxiengo etnikoentzat, Curriculumaren dibertsifikazioa, esku hartzeko egitasmo zehatzak, osagarriak, eta abar.

Dena dela, jardunaren ikuspegitik onuragarria izango litzateke, gure iritziak, honako bereizketa hau egitea. Batetik, oinarrizko laguntza-taldea, hau da, ikastetxeari eta ikasleei laguntzeko administrazioak kontratatutako profesionalak. Bestetik, denbora-epe jakin baterako eta ohiko egiturak utzi gabe, aniztasunari erantzungo dieten neurri zehatzen eta programen erantzukizuna hartuko duen irakasle-taldea.

2.2.2. *Laguntza-taldearen eginkizunak eta betebeharrak*

Orokorrean, zerbitzu honek oinarrizko zeregin bat duela iruditzen zaigu: ikastetxeari beharrezkoa duen laguntza ematea bere hezkuntza-eskaintzaren kalitatea hobeto dezan, eta ikasle guztien premia-aniztasunari erantzuteko gai izan dadin. Jardunari dagokionez, profesional adituen eginkizun nagusia ikastetxeak diseinatutako laguntza-egitasmoaren gauzatzea lortzea da, gainerako irakasleei lankidetzan oinarritutako laguntza eskainiko dielarik. Laguntza hori hainbat zeregin eta betebeharratan zertuko da eta lotura estua izango du ikastetxearen ezaugarri, historia, ereduari buruzko iritzia, eta antzerakoak direla-eta ikastetxe horrek dituen behar eta aukerekin.

Erantzukizun berri horren ondorioz, zerbitzu horretako profesionalak zeregin bikoitza izan beharko lukete, hots, *aholkularitza eta laguntza*. Aholku-

laritza, irakasle guztiei zuzenduko zaie antolaketa eta curriculumaren inguruko erabakien esparruan, horiek baitira ikastetxearen erantzun orokorra osatzen dutenak (IHP, ICP, AJA), bai eta zehaztapen-prozesuaren maila ezberdinetan ere (zikloa, gela, gizabanakoa), aniztasunari aurre egiteko ohiko neurri guztiak har ditzaten. Laguntza, irakasle nahiz ikasleei emango zaie egitasmo edo programazio zehatzen egokitze-prozesuan, eta ikastetxeari continuum bat eskainiko diote ikasleen behar guztiei erantzuteko neurrien eta programen eskaintzan, ohikoenak direnetik hasiz eta ohiz kanpokoenetan amaituz.

Aipatutako zereginak hainbat betebeharreran gauzatu daitezke:

- Ikastetxearekin elkarlanean aritu egitura funtzional bat osatu ahal izateko, zeregin komunak dituzten taldeen lana eta horiek egindako lanaren koordinazioa (bertikala, horizontala eta zeharkakoa) erraztuko duena.
- Ikastetxean, curriculum-eskaintzaren eta ikastetxearen antolakuntzaren hobekuntza erraztuko duen laguntza-egitasmo bat diseinatzen eta gauzatzen laguntzea.
- Ikastetxe barruko pedagogia-taldeekin elkarlanean (maila, ziklo, departamentu, pedagogia-mintegikoak) curriculum-proiektuak, urteko programazioak eta hezkuntza-programa bereziak osatu, garatu eta ebaluatu, ikastetxeak aniztasunari ematen dion erantzuna hobetzeko.
- Irakasleei taldean lan egiten laguntzea, arazoak identifikatzeko, eztabaidatzeko, helburu jakinen lehentasuna negoziatzeko, elkarlana errealismoz eta malgutasunez planifikatzeko, desadostasunak onartzeko, adostasunak jarraitzeko eta lortutako konpromisoak betetzeko duten gaitasuna landuz.
- Gelako talde zehatz baten espazio- eta denbora-testuingurura ICPa egokitzera hezitzaile-taldeei aholkuak ematea.
- Irakasleak lagundu gelako programazioa egokitu eta abian jartzeko prozesuan (irakasleen eta ikasleen zailtasunak aurreikustea eta saihestea, hezkuntza-teknika eta baliabide zehatzak erabiltzea, diseinua, aldaketarako proposamenak garatzea eta ebaluatzea, ikasleekin egingo den esku hartzea).

2.2.3. *Nola antola daiteke*

Laguntza-zerbitzuko profesional bakoitzaren esparrua zehaztea, hots, zer, nola, noiz, norekin eta zertarako esku hartu, ezinezkoa da baldin eta esku hartze komunaren erreferentea eta zerbitzu horren antolaketa ezagutzen ez badira. Horregatik, hainbat orientazio estrategiko finkatzeko, bere laneko zereginari antolaketa, erraztasuna eta sinesgarritasuna emango diotenak, laguntza-zerbitzuak plangintza orokor baten arabera eratu behar du bere lan hori, zenbait dokumentutan zehaztu eta, hobetzeko asmoz, ebaluatu ahal izango dena.

Zentzu horretan, ikastetxe bakoitzak bere Laguntza Egitasmoa izan behar duela uste dugu, gai horrek hezkuntza-komunitate osoa ukitzen baitu eta ikastetxeko laguntza-zerbitzuko langileek izango dituzten egitekoen zerrenda hutsa baino gehiago izango da. Dena dela, diseinua laguntza-taldeak egin dezake, Orientatzailearen koordinazioaz, Zuzendaritza Taldearen laguntzaz, PATEko aholkularien orientazioaz eta Klaustroaren onarpenarekin. Ondoko puntuen arabera gauzatuko da: a) beharren ebaluazioa eta aniztasunari aurre egiteko IHPan adostu diren proposamenak, betiere ikastetxearen testuinguruan; b) aniztasunari erantzuteko ICPan hartu diren neurriak (arruntak, bereziak, eta ohiz kanpokoak); eta c) laguntza-taldeak AJAn duen kokapena. Malgua izango da, bere ebaluazioa egiterakoan beharrezkotzat jotzen diren aldaketak onartuko dituelarik.

Bertan islatuko dira zerbitzu horretan langileen eskuhartzeei zentzua eman eta horiek erraztuko dituzten alderdi guztiak. Gure iritziz, (Errestuz, 1999), horrek guztiak honako alderdiak edo atalak mugatzea dakar:

- Testuinguruan oinarritutako laguntza-eredua. Beharren diagnostikoa nola gauzatu. Horien arteko sekuentziazioa eta lehentasunak ezartzeko irizpideak. Lehentasuna izango duen eskuhartze-mota: erantzun zuzena ala zeharkakoa, laguntzaren objektua (haurra(k)-irakaslea(k) edo taldeak), eskuhartzearen markoa (banakako programazioak, taldekakoak, egitasmoak, eta abar). Plana ebaluatzeko irizpideak.
- Eskuhartzearen esparruak. Ikasleekin eskuhartze zuzena. Pertsona bakarreko Organoak, Talde Organoak, Familiak, laguntzarako beste baliabide eta zerbitzu batzuk (eskolatzeko-programa osagarriak dituzten ikastetxeak, laguntzaileak, ibiltariak, PAT, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, lan-zerbitzuak...). Zonako ekintzetan parte hartzea.
- Laguntza-profesionalak talde-gisa antolatzea eta ikastetxean txertatu. Laguntza-lanak betetzeko soilik hartu diren profesionalak ikastetxeko Orientazio eta Laguntza Departamentuko kide izan daitezke, eta Aholkulari edo Orientatzaile lana betetzen duen pertsonak koordina ditzake, lehen edo bigarren hezkuntzako ikastetxea den kontuan hartuz. Are gehiago, beren lanak ahalik eta eragin handiena izan dezan, ahaleginak errepikatu gabe eta sekularismoan erori gabe, barneko/kanpoko antolaketa-sistema funtzional bat aurkitu beharko dute, partaide diren programen premien eta testuinguruaren aniztasunari aurre egitea ahalbidetuko duena, eta, era berean, horiek guztiak aniztasunari zuzendutako erantzunek osatzen duten kontinuumean txertatzea erraztuko duena, horrela, ikastetxearen eskaintza hobetuz.

Barne-antolakuntzari dagokionez, laguntza-zerbitzu bakoitzak zehazki neurtu beharko du zein diren bertako kideak, zer egingo duten, noiz, nola eta zerekin, betiere, ikastetxeko ikasleen premia-aniztasunari ematen zaion

erantzunaren kalitatea hobetzeko eremuan esku hartzeko erantzukizun komuna dutela ahaztu gabe. Ildo horretatik, mesedegarria izango zaio taldeari, lana eta profilak antolatzerakoan taldea koordinatzeko ardura bere gain hartuko duen profesionalen bat edukitzea (Orientatzailea, Aholkularia, Koordinatzailea...), baina elkarlanaren ikuspegia baztertu gabe, horrek oinarri sendoak emango dizkie-eta banaka egingo diren eskuhartzeei eta talde-gisa garatzen lagunduko baitie. Horrela, taldeak errazago onartuko ditu denen artean gauzatu beharreko zereginak, hala nola:

- Taldekako eskuhartze-egitasmo bat diseinatu, garatu eta ebaluatu, ikastetxeko antolakuntza-egituratik abiatuz, eta bertako laguntza hobetzeko helburua izango duena.
- Lanerako tresnak sortu, taldeka edo taldeekin gauzatuko den eskuhartzean eta curriculuma elkarlanaren bidez egokitzeak dakarren erabaki-prozesuan laguntza-prozedurak finkatu ahal izateko.
- Curriculumaren zehaztapen/egokitzapenaren hainbat egitura eta mailatan, taldeko kideek egin dituzten laguntza-prozesuetatik lankidetzarako prozedurak eta curriculuma egokitzeko estrategiak inferitzea, kalitate onekoak eta ikastetxeko laguntza-egitasmo operatiboaren diseinuan erabili edo/eta hobetu daitezkeenak.

Zerbitzu horrek izango dituen eskuhartzerako esparru eta maila anitzak kontuan izanik, bere eskuhartzearen barne-koordinazioa gordetzeko bideetako bat hauxe litzateke gure ustez: ikasle-talde baten aniztasunari emango zaion erantzunean eragina izango duten erabakiak hartzen diren irakasle-talde, maila-talde eta programa bakoitzak erreferentziazko irakasle laguntzaileak izatea. Era berean, eta laguntza-zerbitzu horretan hainbat profiletako profesionalak dauden neurrian, kide bakoitzak zeregin zehatzak izan ditzake eskuhartzearen marko orokorra alde batera utzi gabe. Aholkulari eta Orientatzaileak izanez gero, horrek har dezake taldea koordinatzearekin eta ordezkatzarekin loturiko zereginak, bai eta irakasle-taldean aholkularitzari, nahiz laguntza-egitasmoen eta ebaluazioaren arteko koordinazioari dagozkionak ere.

Hortaz, laguntza-irakasleen esku utziko litzateke egitasmo eta programen egokitze-prozesuan ikasleei edo irakasleei emango zaien laguntza zuzenarekin loturiko egitekoak. Laguntza-irakasleak besterik ez daudenean, hainbat laguntza-ekintza lehenetsi beharko dira aholkularitzaren eremukoak baztertu gabe. Lanaren banaketa hori osatzeko, astero edo hamabost egunero programaziorako, jarraipenerako eta taldeko kide bakoitzaren eskuhartzeak batera koordinatzeko denbora hartuko da. Horrela, kide bakoitzak eskuhartzearen maila edo programa zehatz baten ardura hartzeko aukera izango luke, bai eta horretan espezializatzeko ere.

Zerbitzu hori ikastetxearen egituran txertatzeari dagokionez, zuzendaritza-taldearekin, mintegi pedagogikoarekin eta irakasle-taldeekin harreman estua izan beharko lukeela uste dugu. Izan ere, zaila da curriculuma

egokitzeko prozesuan laguntzea curriculum-proiektua sortzen eta berrikusten den ohiko esparruetan egon gabe.

Zerbitzu horrek bere gain hartu beharko dituen zereginak errazago kudeatzeko eta koordinatzeko, mesedegarria litzateke Ikastetxearen Urteko Planari, Laguntzarako Urteko Plan bat eranstea eta, adostutako norabide zein irizpideak jarraituz, honako hauek finkatzea: lehentasunak, kide guztien erantzukizunak, eta laguntza-zerbitzuak ikasturte horretarako aurreikusi dituen eskuhartzeak (zuzenak eta zeharkakoak) diseinatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko behar diren bileren egutegia. Plangintza hori malgua litzateke eta ikasturte amaieran ebaluatuko litzateke. Ebaluazioaren ondorioak Urteko Memorian jasoko lirateke. Bien bitartean, ikasturte bakoitzean saiatu diren laguntzarako edo aniztasunari erantzuteko neurri berriak, eta azken ebaluazioan eragingarritzat hartu direnak, ikastetxearen antolakuntza eta curriculum-dokumentuetan ez ezik, laneko ohiko jardunean ere (hezkuntzan nahiz laguntzan) islatuko lirateke.

Jasotze-data: 2003-04-01

Onartze-data: 2003-11-10

Abstract

The purpose of this article is to create open debate about the support services within educational centres, and thus to be able to articulate a series of reflections and conclusions in respect of this subject so that the service be able to respond to pupil diversity. In this way, a summary of the models of support services for the centres is presented. Later a detailed service proposal is presented in order to be able to respond to the diversity in educational centres and, in this way, an analysis is made of the organisation and the forms of intervention. The first section, concerned with the importance of context and the educational project of the centre, presents a series of ideas for reflection. In the second, the role of the professionals working in the support units is approached, and the tasks and skills which should be developed.

Keywords: *Special Education. Special Needs. Pluralism. Treatment.*

La intención de este artículo es crear un debate abierto en torno a los servicios internos de apoyo en los centros escolares, y así poder articular una serie de reflexiones y conclusiones respecto al tema para que el servicio pueda dar respuesta a la diversidad del alumna-

do. De este modo, hacemos un repaso a los modelos de servicios de apoyo para los centros. Después presentamos pormenorizadamente una propuesta de servicio para poder dar respuesta a la diversidad en los centros escolares y, así, analizamos las formas de intervención y organización. En el primer apartado nos ocupamos de la importancia del contexto y del proyecto educativo del centro, dibujando una serie de ideas para la reflexión. En el segundo, abordamos el papel de los profesionales que trabajarán en los servicios de apoyo, y de las labores y habilidades que deben desarrollar.

Palabras-clave: Educación Especial. Necesidades especiales. Pluralismo. Tratamiento.

L'intention de cet article est de créer un débat ouvert autour des services internes de soutien aux centres scolaires, et pouvoir ainsi ordonner une série de réflexions et conclusions à ce sujet pour que le service puisse fournir une réponse face à la diversité des élèves. De cette façon, jetons un coup d'œil aux modèles de services de soutien aux centres. Nous présentons ensuite avec de nombreux détails une proposition de service pour pouvoir fournir une réponse à la diversité des centres scolaires et, ainsi, nous analysons les formes d'intervention et d'organisation. Dans le premier paragraphe, nous nous occupons de l'importance du contexte et du projet éducatif du centre, en dressant une liste d'idées pour la réflexion. Dans le second, nous abordons le rôle des professionnels qui travailleront au sein des services de soutien, et des travaux et savoir-faire qu'ils doivent développer.

Mots clé: Enseignement Special. Besoin specials. Pluralism. Traitement.

BIBLIOGRAFIA

- ERRESTUZ (1999): *La respuesta a las necesidades educativas, mejorando el trabajo en el aula*. Ikastoletako irakasleriari eskainitako P.T gaikuntzarako formazio ikastaroaren argitaragabeko materiala. Donostia.
- ERRESTUZ (2000): *El perfil del profesor de Pedagogía Terapéutica en su contexto de trabajo (centro)*. Ikastoletako irakasleriari eskainitako P.T gaikuntzarako formazio ikastaroaren argitaragabeko materiala. Donostia.
- GALARRETA, J.; MARTÍNEZ, B.; ORCASITAS, J.R. y PÉREZ-SOSTOA, V. (1999): *La formación de profesionales de apoyo al sistema educativo: perfiles y servicios*. Donostia: Erein.
- PARRILLAS LATAS, A. (1996): *Apoyo a la escuela: un proceso de colaboración*. Bilbao: Mensajero.

ERANSKINAK

Siglen esanahia

AJA: Antolakuntza eta Jarduera Araudia
CDP: Curriculumaren Dibertsifikaziorako Proiektua
HB: Hezkuntza Berezia
HPB: Hezkuntza Premia Bereziak
ICP: Ikastetxearen Curriculum Proiektua
IHP: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua
IP: Ikastetxearen Proiektua
PAT: Pedagogi Aholkularitza Taldeak

Hezkuntza berezia behar duten ikasleentzako laguntza, gela/ikastetxe arruntean hobeto txertatu daitezen

Helburua: HBko ikasleak gela edo ikastetxe arruntean integratzea. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei irakaskuntza berezitua eskaintzea.

Laguntza nork emango duen: ikasle-talde bakoitzari dagozkion diagnosi-tekniketan eta tratamendu berezietan espezializatutako Pedagogia Terapeutikoko irakasleak.

Nor lagunduko den: HBkotzat jotzen diren ikasleak zuzenean.

Noiz hasiko den laguntza-prozesua: Testuingurua aintzat hartu gabe, HBkotzat jotzen diren ikasleek laguntzaren beharra dutela alde aurretik diagnostikatzen denean. Edo irakasle arruntek alde aurretik diagnostikatu ez den gabeziaren bat sumatzen dutenean ikasleengan.

Laguntza non emango den: laguntza-gelan, zuzenean eta banaka, edo talde homogeneotan. Zenbaitetan, irakasle arrunten onespenearekin, gela arruntean banaka eta zuzenean, edo zeharka, material eta programa zehatzen bidez.

Zein erreferentzia-programarekin: ikasle bakoitzari dagokion programa bereziarekin edo talde berezi homogeneoaren laguntza-gelako programazioarekin. Zenbaitetan, erreferentzia-taldearen programa ofizial eta ez egokitu egokitu da.

Beste zerbitzu eta profesional batzuekiko harremana: HBko ikasleekin eskola barruan edo kanpoan jarduten duten profesionalekin (hezitzaileak ala ez) koordinatuko da: ikastetxeko beste laguntza-irakasle batzuk, PATeko Talde Multiprofesionala, HBko kanpoko zerbitzuak, HBko ikasleen familiak eta abar. Bai eta zailtasunak dituzten ikasleen irakasle arruntarekin ere, nahiz eta horrek ez parte hartu banakako programaren diseinuan eta egokitzapenean.

Lana nola antolatu: laguntza-planaren bidez, bakarka edo ikastetxeko beste laguntza-irakasleekin elkarlanean osatuko duena eta laguntza-gelan garatu ohi dena.

Irakasle arruntentzako laguntza, HPBAK dituzten ikasleekin gelan duten eskuhartzea hobetzeko

Helburua: Irakasle arruntentzako eskuhartzea erraztea HPBAk edo ikasteko zailtasun nabarmenak dituzten ikasleei dagokienez.

Laguntza nork emango duen: Premia guztiei testuinguruaren arabera erantzunak emateko asmoz, gelako curriculum-diseinuan espezializatzen hasi diren laguntza-irakasleak.

Nor lagunduko den: Zuzenean premia bereziak dituzten ikasleei edo/eta beraien irakasleei, horrela, zeharkako laguntza ahalbidetuz.

Noiz hasiko den laguntza-prozesua: Ikaslea talde arrunteko kide dela eta bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erantzukizuna irakasle arruntarena dela gogoan izanik, laguntza hasi egingo da tutorea edo irakasle arruntak gelako programa ikasle jakin bati egokitzeko beharra sumatzen duenean.

Laguntza non emango den: Laguntza-irakasleak eta irakasle arruntek erabakitzen duten tokian: laguntza-gelan edo gela arruntan, egokitutako programak edo irakasle arruntek diseinatutako material bereziak erabiliz eta laguntza-irakasleen laguntzaz.

Zer erreferentzia-programarekin: Taldeko programaziotik abiatuz, curriculumaren edozein atalean beharrezkoak diren aldaketak egingo dira, bi irakasleek (arruntak eta laguntzaileak) egokitzen dituztenak.

Laguntzaren integrazio-maila ikastetxean: Laguntzarako plana, laguntza hori jasoko duten ikasleen getetako dinamikarekin koordinatuko da. Ez dago laguntzarako plangintza orokorrik eta halakorik badago ez dagokio ikastetxearen egitasmo orokorrari, baizik eta laguntza-profesionalei.

Beste zerbitzu eta profesional batzuekiko harremana: Laguntza-irakasleak lankidetzan estuan arituko dira gelan hezkuntza-premia bereziak eta zehatzak dituzten ikasleen irakasle arruntekin. Gainera, bestelako laguntza-profesionalekin ere (hezitzaileak edo ez) harremanetan egongo dira, ikasle horiekin harremanetan daudenak (eskola barruan edo kanpoan). Ikastetxeko dinamika orokorrean parte hartzen hasiko da, edozein irakasleren moduan.

Lana nola antolatu: Laguntza eskatzen duten irakasle arruntekin adostutako hainbat laguntza-plangintzaren arabera.

Ikastetxearentzako laguntza, hezkuntza-kalitatea hobetzeko premia-aniztasunari erantzunez

Helburua: Ikastetxeari laguntzea, aniztasunari emango zaion erantzunen kontinuuma diseinatzen, horren jarraipena egiten eta ebaluatzen eta, ondorioz, bere hezkuntza-eskaintza hobetzen.

Laguntza nork emango duen: Irakasle berezietuek, curriculumaren egokitzapenean muin bakartasunaren eta aniztasunaren arteko oreka gordez eta IHPa elkarlanean garatuz.

Nor lagunduko den: Eskolatzeko-prozesuan zehar, ikasleek azaltzen duten premien aniztasunari hezkuntza-eskaintza egokitzen zailtasunak dituen edozein irakasle edo hezitzaile-talderi. Irakasle den aldetik, ikastetxeak ematen dion edozein ikasle-talde zehatzi.

Laguntza-prozesua noiz hasiko den: Ikastetxeak duen hezkuntza-eskaintzaren edozein maila edo programa hobetzeko beharra sumatzen denean. Bestalde, eta arazoak saihesteko asmoz, ikastetxeak eskaintzen dituen eskuhartzeen plangintza, jarraipen eta ebaluazioaren ohiko prozesuetan zehar ere laguntza eskainiko da, premia guztien erantzun-continuum «zertzelatuz».

Laguntza non emango den: Irakasleei laguntza zuzena emango zaie gela arruntaren testuinguruan (binakako eskuhartzeetan, eskuhartzeren baten adibideak ematen duenean, eta abar), adostutako bileretan (banaka edo taldeka) eta maila, alor edo programako irakasle-taldeen ohiko bileretan, aniztasunari erantzuteko ohiko estrategien inguruko bere ezagutza emango du laguntza-profesionalak. Ikasleei laguntza zuzena emango zaie, ohiko talde heterogeneotan edo epe baterako osatu diren talde homogeneoetan, programa bereziak landuz (indargarriak, multzokatze malgua, hautazkoa, CDPa, eskuhartze jakinetarako egitasmoa, programa osagarria, eta abar).

Zein erreferentzia-programarekin: Erreferentzia-talde eta irakasle-talde bakoitzarentzat ikastetxean hezkuntza-eskaintzat hartzen den edozein.

Laguntzaren integrazio-maila ikastetxean: Laguntza-irakasleek ikastetxeari laguntzeko taldea osatuko dute eta eguneroko antolaketa-egituran partaide izango dira. Laguntza-eredua eratzen eta kudeatzen duten dokumentuek (Ikastetxearen Laguntzarako Plangintza Orokorra, Urteko Plana, eta Memoria), ikastetxeko dokumentu orokorren artean sartuko dira.

Beste zerbitzu eta profesional batzuekiko harremana: Laguntza-profesionalak departamentu bat osatuko dute. HBn berezitutako zerbitzuekin zeharkako harremanak izaten hasiko dira eta aniztasunari erantzuteko arazo berdintsuak dituzten beste ikastetxeekin jarriko dira harremanetan.

Lana nola antolatu: Ikastetxearen Laguntzarako Urteko Planaren bidez eta ikastetxeko beste laguntza-profesionalekin lankidetzan. Ikasleen aniztasunari nola aurre egin eta HPBak dituzten ikasleei erantzuteko prozeduren inguruan, IHPak eta ICPak markatutako ildoari jarraituko zaio.